

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA	151343	2023/2024
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
HAUR HEZKUNTZA	4	2
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Roberto Mielgo		

Justifikazioa

Hizkuntzen trataera bateratua ikasgaiak Hizkuntzen Didaktika ikasgaietan egindako lana osatzen du. Ikasgai honen ikuspuntua hizkuntzak eta arloak zelan bateratu izango da eta horrela erantzuna eman Euskal Kurrikulumari, zein ikastetxeen eskaerei, gurea lako gizarte eleanitz batean dugun erronkari erantzun egokia emanaz.

Ikasgia ikaskuntza eleaniztunaren oinarri psikopedagogikoetan eta Hizkuntzen Trataera Bateratuaren interbentzio ereduetan oinarritzen da. Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuen baitan, ikasgai honek hizkuntza desberdinen irakaskuntza ibilbidea diseinatzeko eta edukien sekuentziaziorako irizpideak aztertu eta praktikan jartzea du oinarri. Horrez gain, Hizkuntza eta Arloen Ikaskuntza Bateratua ere kontuan hartzen du, bai kurrikuluaren planifikazioan, zein gelarako interbentzioaren diseinuan.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

G.O.1. PENTSAMENDU KRITIKOA: Gauzen arrazoiaren gainean eta norberaren eta inoren ideiak, ekintzak, balorazioak eta iritziak zertan oinarritzen diren galdetzeko buru joera du.

2. maila. Norbere iritziak eta besteenak koherentziaz aztertzea, eta norberarengan eta gizartean dituzten eraginak baloratzea.

Adierazleak:

- Uste eta balorazio propioak adierazten ditu.
- Usteak barne irizpideen arabera (barneko oinarri, koherentzia, fidagarritasunaren arabera) ematen ditu.
- Erabaki eta proposamenen inplikazio praktikoak baloratzen ditu.

Berariazko gaitasunak

1. Berariazko Gaitasuna: Ikastetxe proiektu komuna eta adostua diseinatu, garatu eta jarduteko erreferente bezala izatea eta ebaluatzea, umeen heziketa berdintasunean eta integrazioan garatzen duena, balore demokratikoak eta errespetuzkoak bultzatzen dituena.

Adierazleak:

- Hizkuntza arloko kurrikulu proposamenen diseinuan parte hartzen du, edukiak hizkuntzaren ikuspegi bateratu batetik sekuentziatuz.

2. Berariazko Gaitasuna: Norbere garapen profesionalaren protagonista izatea era kolaboratzailean, bere irakas-jarduera etengabe hobetuz.

Adierazleak:

- Bere ikaskuntzen garapenean aurrera egiten du auto-behaketa zein ikaskideen arteko behaketaren bitartez.
- Bere proposamen didaktikoak hobetzen ditu, taldeka hausnartuz eta praktika zein materialak aztertuz.



Garapen Iraunkorrerako Helburuen presentzia ikasgaien

Ikasgai honen bidez 10. eta 16. GIHren helburu kognitiboak eta sozioemozionalak landuko dira:



GIH 10: Desberdintasunak Murriztea. GIH 16: Bakea, justizia eta erakunde sendoak.
OLS: Hezkuntza Ekologikoa

Ikaskuntza helburu kognitiboak:

- Ikasleak badaki desberdintasuna gizarte-arazoaren sortzaile eta gizabanakoaren nahigabearen eragile dela.
- Ikasleak ulertzen ditu berdintasunarekin lotutako printzipio etikoak, eta badaki zer prozesu psikologikok sustatzen dituzten jarrera eta erabaki diskriminatzaileak.
- Ikasleak ulertzen ditu justizia, inklusio eta bake kontzeptuak eta legeekin duten erlazioa.

Ikaskuntza helburu sozioemozionalak:

- Ikaslea jabetzen da bere inguruan eta munduan dauden desparekotasun-egoerez, eta gai da horiek ekar ditzaketen ondorio eta arazoak ezagutzeko
- Ikaslea gai da beren herrialdean nahiz kanpoan bidegabekeriak jasaten dituztenekiko enpatia erakusteko.
- Ikaslea gai da bakearekin, justiziarekin, inklusioarekin eta erakunde sendoekin lotutako tokiko eta mundu-mailako gaiez gogoeta egiteko.

Edukiak

1. Ikastetxe mailako hizkuntza plana bateratua egiteko oinarriak.
2. Ikaskuntza eleanitzaren oinarri psikolinguistikoak.
3. Hizkuntzen kurrikulum bateratuaren planifikazioa egiteko ereduak eta prozedurak.
4. Interbentzio ereduak TILen eta AICLE/CLILen oinarriak kontuan hartuz.
5. Edukietan oinarritutako 2H eta 3Hko didaktikarako, eta hizkuntzak eta arloak bateratzeko ereduak eta prozedurak.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Testuinguruan jartzen laguntzeko jarduerak: estrategia hau erabiliko da ikasgai honetan ikasleen esperientziak biltzeko, galdetegi bidez, umeen produkzioak aztertuz edo gelako elkarrizketa egoera desberdinetan.

Hausnarketarako jarduerak: irakasleak galdera egokiak egingo ditu eta ikasketa egoera desberdinak behatzeko aukera emango du, gelan taldeko zein banakako hausnarketa bultzatzeko.

Kontzeptualizatzeko jarduerak: irakaslearen azalpenak, irakurketak, kasu-azterketak izango dira, besteak beste, kontzeptualizazioa bultzatzeko estrategiak.

Zuzeneko saiakuntzarako jarduera praktikoak: gelarako proposamenak diseinatzeko jarduerak egingo dira, irakaslearen gidaritzarekin.

Ebaluazioa

Gaitasunen ebaluaketak honako balioa izango du:

- Berariazko gaitasunek % 90
- Gaitasun orokorrak % 10

Honako tresnen bidez egingo da ebaluaketa:

- Gelako ekintzetan oinarritutako lanak: irakurketetan eta proposatutako ariketetan oinarritutako hausnarketak, materialen ebaluaketak, ikaskideen arteko ebaluaketak eta autoebaluaketak.
- Bakarkako zein talde lanak, euren artean mapa kurrilular baten diseinua.
- Galdeketak.

Dokumentazioa

- Aliaga, R. (2010). La enseñanza de las lenguas extranjeras en Euskadi, *Avances en Supervisión Educativa*, 13.
- Arano, Rosa M^a; Ugarte, M. Josune (2000). Hirugarren hizkuntzaren irakaskuntza arlo baten bidez: Txingudi Ikastolako esperientzia. *Ikastaria*, 11, 119-128.
- Arano, R.M., Berazadi, E. & Idiazabal, I. (1996). Planteamiento discursivo e integrador de un proyecto de educación trilingüe. in Pujol, M. & Sierra, F. (Arg). *Las lenguas en la Europa comunitaria II* (pp. 65-87). Amsterdam-Atlanta: Rodopi (Estudios Hispánicos, 18).
- Arnau, J. (2001). La enseñanza de la lengua extranjera a través de contenidos: principios e implicaciones prácticas. *Actas del Congreso Internacional*. Oviedo: Anaya-MEC.
- Arnau, J. (1999). Aproximaciones pedagógicas en la enseñanza de la segunda lengua a través de las matemáticas en la inmersión temprana. *Infancia y aprendizaje*, 86, 41-56.
- Arnau, J. (1996). Introducción: enseñanza de la lengua a través de contenidos. *Infancia y Aprendizaje*, 86, 5-12
- Arnau, J., Comet, C. & Vila, I. (1992). *La educación bilingüe*. Bartzelona: ICE/Horsori.
- Barrientos, C. (1993). La diversidad de los discursos como eje de secuenciación. *Aula de Innovación Educativa*, 14, 10-14.

- Bronckart, J-P. (1993). *Hizkuntzaren zientziak: irakaskuntzarako desafioa?*. HABE. Donostia.
- Cenoz, J. (2003). El aprendizaje del inglés desde educación infantil: efectos cognitivos, lingüísticos y afectivos. *EDULING-Revista fórum sobre plurilingüismo y educación*. 1.
- Cenoz, J. (1999). Plurilingüismo temprano. *Ikastaria*, 11, 185-192.
- Cenoz, J. (1993). El aprendizaje de la tercera lengua. In Elkarlanean, *Primeras Jornadas de Educación Plurilingüe*. Bilbao: Fundación Gaztelueta, 139-157.
- Cummins, J. (1993). Aspectos psicolingüísticos de la educación plurilingüe. In Elkarlanean, *Primeras Jornadas de Educación Plurilingüe*. Bilbao: Fundación Gaztelueta, 139-157.
- Cummins, J. (1983). Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües. *Infancia y Aprendizaje*, 21, 37-61.
- Darnés, A., Geli, M.E., Martín, L. & Ruf, R. (1997). Andorra: una escuela y cuatro lenguas. *Textos*, 13, 49-56.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1997). Géneros y progresión en expresión oral y escrita. *Textos*, 11, 77-98.
- Dolz, J. & Gagnon, R. (2010). El género textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito. *Lenguaje*, 38 (2), 497-527.
- Etxebarria, F. (1999). *Bilingüismo y educación en el país del euskara*. Donostia: Erein.
- Ferrer Ripollés, M. (1997). La elaboración del proyecto lingüístico desde infantil a secundaria. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, 13, 57-65.
- Fernández Paz, Agustín (2001). Las actitudes lingüísticas en situaciones de contacto de lenguas: el caso de Galicia. *Textos*, 26, 17-28.
- Garagorri, Xabier (2000). Eleaniztasun goiztiarra bai, baina ez edonola. *Ikastaria*, 11, 97-117.
- Halbach, A., García Gómez, A. & Fernández Fernández, R. (2009). *Enseñar en el proyecto bilingüe: reflexiones y cursos para el profesor*. Badajoz: Abecedario.
- Idiazabal, I. & Larringan, L. M. (2000). Hizkuntza trebetasunen transferentzia programa elebidunetan. *Ikastaria*, 12, 143-154.
- Jorba, Jaume; Gómez Isabel; Prat, Àngels (Ed) (2000). *Hablar y escribir para aprender*. Bartzelona: Ed. Síntesis.
- Lasagabaster, D. (2005). La presencia de tres lenguas en el currículo: multilingüismo en los contextos canadiense y español. *Revista de Educación*, 337, 405-426.
- Marsh, D. (2002). *CLIL / EMILE – The European Dimension: Actions, Trends and Foresight Potential*. Eskuragarri hemen: <https://jyx.jyu.fi/handle/123456789/47616> (Azken ikustaldia: 2021-01-30)
- Mehisto, P., Marsh, D. & Frijols, M. J. (2008). *Uncovering CLIL*. Oxford: Macmillan.
- Met, M. (1999). Impulsando el desarrollo de la segunda lengua mediante la enseñanza de contenidos. *Infancia y Aprendizaje*, 86, 13-26.
- Milian, M. (1993). Las actividades de escritura en las áreas curriculares no lingüísticas. *Aula de Innovación Educativa*, 14, 34-39.
- Miret, I. & Ruiz Bikandi, U. (1997). El proyecto lingüístico de Centro. *Textos*, 13, 5-7.
- Perez Esteve, P. & Roig Estruch, V. (2009). ¿Enseñar inglés o enseñar en inglés? Factores que inciden en la eficacia de la enseñanza y aprendizaje del inglés en Educación Infantil. *CEE Participación Educativa*, 12, 87-99.
- Pérez Esteve, P. & Roig Estruch, V. (2004). *Enseñar y aprender inglés en educación infantil y primaria*. Bartzelona: ICE/Horsori.
- Poth, J. (2000). Elogio del plurilingüismo. *El correo de la UNESCO*, 53/4, Abril, 29.
- Ruiz Bikandi, U. (2011). La introducción temprana del inglés en pequeñas dosis supone un costo enorme sin un rendimiento claro. *Cuadernos de Pedagogía*, 400, 40-45.
- Ruiz Bikandi, U. Hizkuntzen tratamendu bateraturako hizkuntza proiektua. Nafarroako Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa.
<http://eibz.educacion.navarra.es/baliabideak/eleaniztasuna/doku%20%20euskaraz%20marko%20nagusia%20uri.htm> (Azken ikustaldia: 2021-01-30)
- Ruiz Bikandi, U. (1997). Decisiones necesarias para la elaboración del proyecto lingüístico de centro. *Textos*, 13, 9-24.
- Sainz, M. & Bilbatua, M. (1999). Proyectos, géneros textuales y modos de intervención en cada ciclo de educación

primaria. Una experiencia en modelos de inmersión. *Infancia y Aprendizaje*, 86, 57-71.

Ytsma, J. (2001). Towards a Typology of Trilingual Primary Education. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 4, 11-22.

Zayas, F. (2012). Los géneros discursivos y la enseñanza de la composición escrita. *Revista Iberoamericana de Educación*, 59, 63-85.

Zayas, F. (1997). Las prácticas discursivas como eje para secuenciar las habilidades lingüísticas. Una propuesta para la ESO. *Textos*, 11, 23-36.